

Sagardoa eta kirola uztarturik Sagarrondotik-en

► Urnietako, Hernaniko, Astigarragako eta Usurbilgo taldeek desafioa jokatuko dute

Urnietara bilakatuko da bihar Sagarrondotik-en eszenatokia. Bertan, goizeko hamarretatik aurrera, sagardo dastaketa eta artisautza azoka egingo dituzte. Goizeko hamaiketatik aurrera, Urnietako, Hernaniko, Astigarragako eta Usurbilgo ordezkariak herri kirolean nor baino nor jardungo dute.

GARA

URNIETA

Sagarrondotik jaialdian, biharkoan, sagardoak eta kirolak hartuko die lekua musika kontzertuei.

Goizeko hamarretan hasiko da Urnietako San Juan plazan sagardo dastaketa. Bertaratu-tako edonoren aukeran izango dira Urnietako sagardogileen zukurik hoberenak.

Era berean, ikusgai izango dira Buruntzaldeako hainbat artisaren lanak. Orotara, hamabost postu jarriko direla jakinarazi dute antolatzaileek. Egur taila, harrizko artelanak, marketeria, keramika... Dene-tik ikusi eta, noski, erosteko parada izango da.

Zintzurri ez ezik, urdailari ere gozagarrria emateko, goiz guztian txekor bat erreko dute, eta gero, eguerdi aldean, bertaratzen diren guztien artean banatuko dituzte pintxoak.

Guztia kale animazioak alaituko du; izan ere, goizean goizetik hasita, musika doinuek

hartuko dituzte Urnietako kaleak.

Bihar Urnietara bertaraten direnek izango dute azken urteetan arrakasta itzela izan duen beste ikuskizun batekin gozatzeko parada, herrikirol ikuskizunarekin hain justu; izan ere, goizeko hamaiketatik aurrera herri kirol desafioa jokatuko dute Usurbilgo, Hernaniko, Urnietako eta Astigarragako ordezkariak.

Herri bakoitzeko taldeek, 17 lagunez osatuta daudela, euren indarrak neurtu beharko dituzte hainbat frogetan. Besteren artean, honako frogak egin behar izango dituzte: txinga lasterketa, sagar biltzea eta garraioa, sagar zakua bizkarrean hartuta lasterketa, ingudea; sokatira eta harri jasotzea. Frogak ahalik eta hoberen egiteko, herri bakoitzeko taldeek asteetan jardun dute prestatzen. Iaz, Urnietarrek lortu zuten garaipena, eta orain bi urte, berriz, hernaniarrek lortu zuten. Aurten nor izango ote da talderik sa-soitsuena?



Gari GARAIALDE | ARGAZKI P...

Urnietako sagardogileen zukuak dastatzeko aukera izango da.